

# KALITATE, SEGURTASUN, LAN-OSASUN, INGURUMEN ETA INFORMAZIOAREN SEGURTASUNERAKO POLITIKA



AMPO Koop.E-k, altzairuzko eta beste zenbait aleazio edo materialez egindako piezen fabrikazioa, galdaketa, eraldaketa eta salmenta, balbulagintza nahiz zenbait aktibitate industrial, komertzial eta zerbitzu elkarkide edo osagarri ditu helburu gisa.

Horretarako, AMPO Koop. E.k pertsonetan oinarritutako proiektu sendo bat ezarri du, talde lanean jardunez, enpresa bikain izatera irits daitezen; bezeroen, kooperatibako pertsonalaren, kanpo-laguntzaileen eta gure inguruaren (gizartea eta ingurugiroa) etengabeko asebetetzearen bidez, beti ere. Horrela, irabaziak lortu eta aberastasuna sortuko duen hazkuntza nahiz lanpostu berriak posible izan daitezten komunikazio eta partehartze aktiboan oinarritutako esparru kooperatibo batean. Hori dela eta oinarritzotzat jotzen ditugu gure KALITATE, SEGURTASUN, LAN-OSASUN, INGURUMEN ETA INFORMAZIOAREN SEGURTASUNERAKO POLITIKA osatzen duten printzipioak:

- Bezeroaren asebetetzea gure etorkizuneko bermea da eta horregatik, gure lehenetsun nagusia izan behar da.
- Informazioaren eta datuen konfidentzialtasuna, integritatea eta erabilgarritasuna errespetatzea, bezeroen jabetza intelektualekin batera.
- Etengabe, gorengo konpetentzia profesionala lortzea.
- Berrikuntzan oinarritutako proiektu bat gauzatzea ahalbidetuko digun elkar banatutako lidergo estilo berri bat bultzatzea, talde autokudeatuak ardatz dituen ikaskuntza konpartitua aurrera eramanez. Kalitate, segurtasun, lan-osasun, ingurumen eta informazioaren segurtasunaren Kudeaketa Sistemen eraginkortasuna etengabe hobetzea.
- Enpresaren estrategiarekiko ikus puntuaren barne eta kanpoko gaiak zehaztu eta sistemaren kudeaketan beharrezkoak diren interesatuen eskaerak aztertu.
- Datuen bitartez kudeatzea. Eraginkortasuna eta prozesuen eta segurtasun soluzioen eragingarritasuna neurtuko duten nahiz helburuen betetze-maila adieraziko duten indikatzaileen ezarpena eta jarraipena.
- Egunez egun organizazioan lan egiten dugun pertsonon lan-baldintzak eta osasunaren hobekuntza nahiz babesa bermatzea, hurrenez hurren.
- Konpromiso etengabea kutsaduraren eta ingurumeneko prebentzioan, baliabide naturalak kudeatuz eta gure aktibitateari atxikitako ingurune-inpaktua minimizatuz, zehazki kutsadura atmosferiko eta akustikoari dagokionean.
- Informazioaren segurtasunerako arriskuak identifikatzeko gaitasunak hobetzea, mehatxuen antzematea, horien aurkako babesa, segurtasun-intzidenteen aurrean erantzuna ematea eta Erakundeak bere eginkizunak betetzeko erabiltzen duen informazioa arriskuan jartzen duen gertaera batetik berreskuratzea.
- Legezko betekizun aplikagarrien nahiz organizazioak izenpetutakoen betetzea, hala nola ISO araudiak eta zibersegurtasun eta informazioaren segurtasun esparruak.
- Kalitate, Segurtasun, Lan-Osasun, Ingurumen eta Informazioaren Segurtasunerako printzipioak betetzeko beharrezko diren baliabide egokiez hornitzea eta langileen kontsulta eta parte hartzearekiko konpromisoa.
- Segurtasun Nuklearraren kultura sendoa sustatu eta babestea.

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Ibon Imaz'.

Ibon Imaz  
Koordinatzaile Orokorra

Urtarrila 2022